

# **TXIMISTA XAKEKO NAFARROAKO TALDEKAKO TXAPELKETA.**

**(2024ko ekainaren 1ean, Iruñean).**

## **Eguna:**

2024ko ekainaren 1ean.

## **Txapelketan erabiliko den sistema:**

Suitzar sistema erabiliko da, horretarako nahiko talde badira. Talde gutxi baldin bada, Liga sistema erabiliko da. Multzoen bidez ere antola daiteke, beste sistemetarako talde gutxi edo asko baldin badira. Torneoko zuzendariak erabakiko du, talde parte hartzaileen arabera.

## **Tokia:**

Iruñeko Printzearen Gotorlekua Gazteentzako Egoitza (Goroabe kalea, 36).

## **Hasiera:**

Arratsaldeko 4ak eta 15 minututan.

## **Partiden iraupena:**

3 minutu gehi 2 segundo jokaldiko.

Tximista Xakeko FIDE elorako balio du.

## **Salneurria:**

20 euro.

Izena emateko epea itxi baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, taldea kanporatua izan daiteke.

## **Inskripzioa:**

Epea 2024ko maiatzaren 29an amaituko da (asteazkena da), arratsaldeko ordu bietan.

Nafarroako Xake Federakundearen posta elektronikoan egin beharra dute taldeetako ordezkariak: "info@fnajedrez.com".

Epez kanpo talde bat onartzen bada, bigarren txandan hasiko da 0 puntuz.

## **Gutxi gora beherako ordutegia:**

Bilkura, Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza aukeratzeko: 15:45.

Lehenengo txanda: 16:15.

Behin txanda bat hasita, 15-20 minutu igaro ondoren, hurrengo txanda jokatuko da. Joko sistema eta talde kopuruaren arabera izanen da. Joko aretoan, hasieran, txanda kopurua eta bere ordutegia argitaratuko dira.

Saillkapenak argitaratzea: Azkeneko txandaren ondoren, ordu erdia igarota.

Txapelketa hasi baino lehen, jokalarien bilkura, parte hartzaileen zerrenda erakustea eta Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritzaren hautaketa izanen da.

### **Jokalariak:**

Lau jokalariko taldeak izanen dira (6 egon daitezke zerrendan). Ez da beharrezkoa FIDE eloaren arabera jokalariak jartzea. Indar zerrenda eta kapitainaren izena eman behar dira inskripzioa egiteko epearen barruan. Jokalarien ordena ezin da aldatu txapelketan zehar.

Mahaietan hutsune bakoitzeko puntu erdiko zigorra jasoko du taldeak. Hutsunea laugarren mahaietan izanen da, hiru jokalaria badira. Hirugarren eta laugarren mahaietan, 2 jokalaria badira.

Aktan jarritako jokalaria bat agertzen ez bada, puntu bateko zigorra jasoko du bere taldeak. Gainera, bere atzetik jarritako jokalarien partidak galdutzat emanen zaizkio bere taldeari.

Neurketa jokatzeko, gutxienez bi jokalaria aurkeztu behar dira (bestela, 4-0 galdu eta 2 puntuko zigorra jasotzen da). Bi jokalaria apuntatuz gero, bat aurkezten ez bada, zigor bera izanen da.

### **Taldea ez agertzea:**

Kortesiazko denbora luzatuko da bandera erori arte.

Arrazoirik gabe partida jokatzerara agertzen ez den taldea kanporatua izanen da. Epailak eta Torneoko Zuzendariak ahalmena dute hasierako orduan ez agertutako taldeak kanporatzeko edo Lehiaketa Batzordearen hautaketarako agertzen ez direnak.

Kanporatutako talde bateko jokalariek ezin izanen dute beste talde batekin jokatu.

### **Jokalarien zerrenda eta neurketaren akta:**

Jokalarien zerrendan agertutako ordena ezin da txapelketa osoan aldatu.

Kapitainaren funtzioak FIDEren arautegian zehaztuta daude. Lehiaketen Araudi Orokorrean ere agertzen dira (2.8a artikulua).

Kapitaina txanda batean ez badago, bere funtzioak egiteko beste pertsona bat izenda dezake. Neurketa hasi baino lehen aktan agertuko da bere izena.

### **Neurketaren akta:**

Kapitainak dira akta ongi osatzeko arduradunak. Baita bukaeran akta sinatzeko ere.

Lehenengo mahaian zuriekin jokatuko duen taldeko kapitainak datu orokorrak beteko ditu eta gero bere taldearenak. Gero, beste taldeko kapitainak osatuko ditu bere taldearen datuak.

Neurketaren hasierako orduan akta osatuta ez badago, hori gertatu izanaren arduradunaren taldeko jokalarien erlojuak abian jarriko dira.

Aktan zuzen datu hauek jarriko dira:

- Torneoa, maila eta txanda zenbakia.
- Neurketaren data.
- Taldeen izenak.
- Taldeetako kapitainen izenak eta bi deiturak.
- Jokalari bakoitzaren izenak eta bi deiturak.
- Lortutako puntuazioa.
- Talde bakoitzak lortutako puntuazioa.

Daturen bat falta bada, jokalarien legez kanpoko zerrenda moduan hartuko da.

Datu guztiak osatu arte (emaitzak izan ezik), partidak ez dira hasiko.

#### **Ezberdinketak:**

Neurketa irabazteak 2 puntu emanen ditu; berdintzeak puntu bat; galtzeak 0 puntu.

Suitzar sisteman: 1) Partiden puntuazioak; 2) berdindutako taldeen arteko emaitzak; 3) Sonnenborn-Berger (talde baten puntuak bider talde horrekin lortutako puntuak eta, aurkari guztiaren biderkaketa hori egin eta gero, emaitzen batura); 4) Bucholz – 1 (aurkari txarrena kenduta).

Round Robin sisteman: 1) Partiden puntuazioak; 2) berdindutako taldeen arteko emaitzak; 3) Sonnenborn-Berger (talde baten puntuak bider talde horrekin lortutako puntuak eta, aurkari guztiaren biderkaketa hori egin eta gero, emaitzen batura); 4) Herbehereetako sistema, berdindutako taldeen artean; 5) garaipena lortu duen lehen mahaiairen alde; 6) lehenengo mahaian beltzeekin jokatu duenaren alde.

#### **FIDE arauak:**

Indarrean dauden FIDEn arauak aplikatuko dira.

#### **Sariak:**

Lehenengo hirurek trofeoa irabaziko dute, beste txapelketetara sailkatzeko eskubideez gain.

#### **Erreklamazioak:**

Desadostasunak adierazteko erreklamazioa egin diezaioke kapitainak Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordearen Ordezkaritzari. Epailaren erabakien aurrean, idatziz egin behar du erreklamazio hori, gorabehera gertatu eta berehala. Ezin bada, asmoa agertu behar du, gero prestatzeko (tartean Ordezkaritzako kideak bilduko dira).

#### **Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza:**

Lehenengo txanda baino lehen, kapitainek adinez nagusi izanen diren Ordezkaritza horretako lau kide aukeratuko dituzte (ordezkoak izanen dira horietako bi, titularrak gorabeheran sartuta daudenerako). Lehenengo bozketan epaile titulua duten kapitainak aukera daitezke soilik. Bigarren bozketan beharrezkoa bada, gainontzeko kapitainak ere bai.

Klub batek zenbait talde baldin baditu, Ordekaritzan klubeko batek soilik sartzerik izanen du.

Torneoko zuzendaria ere kide izanen da eta kalitatezko botoa izanen du.

Diziplinako ahalmenak ez ditu izanen Ordezkaritzak. Soilik epailearen edo Torneoko zuzendariaren erabakien aurkako erreklamazioak ebatzea izanen da bere lana.

Hiru kideak biltzerik ez badago, birekin har daiteke erabakia. Beharrezkoa bada, Lehendakariak har dezake bere kabuz.

Torneoko zuzendariak (edo bere ordezkoak), Ordezkaritzako lehendakari moduan, ebazpena idatziko du eta aldeei eta epaile nagusiari emanen die.

Jakinarazi ondoren eraginkorrak izanen dira ebazpenak.

Batzordeko kideren bat inplikaturik badago aferan edo interesatua balitz, utzi beharko dio bere postua ordezko bati.

Batzordeko lehendakariak zehaztuko du hori, bere kabuz edo erreklamazio baten aurrean. Hala ere, Batzordeak erabaki hori atzera bota dezake.

Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordearen aurrean erreklamazioa egin daiteke Ordezkaritzaren erabakien aurka. Honek ofizioz ere har dezake parte Ordezkaritzaren erabaki bat zuzentzeko edo gertaera larriak badira, horien aurrean Ordekaritzak erabakirik hartu ez badu.

### **Parekaketak:**

Lehenengo txandako parekaketa egiteko taldeetako lehenengo lau jokalarien batez besteko eloan arabera ordenatuko dira taldeak (FIDE eloa edo, hori eduki ezean, FEDA eloa). Sistema suitzarraren arauak aplikatuko dira gero edo multzotan modu orekatuan banatuko dira taldeak. Liga bada, zenbakiak zozkatuko dira; ahal bada, klub bereko jokalariek haien arteko partidak jokatuko dituzte lehenengo txandetan.

Parekaketak erakutsiko dira joko gelan. Suitzar sistema erabiltzen bada, sistema informatiko baten bidez eginen da.

Suitzar sistema erabiliz gero, parekaketaren aurkako erreklamazioa egin daiteke txanda hasi baino lehen, arrazoi hauengatik:

- Jokalari baten aurka bigarren aldiz jokatu behar izatea.
- Kolore berberarekin hiru aldiz jarraian jokatzeagatik (azkeneko txanda ez bada).
- Kolore batekin bestearekin baino hiru aldiz gehago jokatzeagatik (azkeneko txanda ez bada).

### **Beste hainbat kontu:**

Joko gelan partidak analizatzerik ez dago.

Partidan zehar joko gela uzteko epaileei baimena eskatzea gomendatzen da.

Torneoan izena ematean, oinarri hauek onartzen dira.

Epaile nagusiaren eta epaile laguntzaileen izenak NXFren webgunean argitaratuko dira.

**Torneoko zuzendaria.**

**Joaquin Perez-Seoane Garrido.**

## **2022-23ko DENBORALDIKO AZKENEKO SAILKAPENA.**

- 1) Donibane Kirol Elkartea A (Iruñea) – 16 puntu.**
- 2) Santa Ana (Tutera) – 16 puntu.**
- 3) Donibane Kirol Elkartea Adultos (Iruñea) – 14 puntu.**
- 4) Mikel Gurea A (Burlata) – 13 puntu.
- 5) Noain – 10 puntu.
- 6) Berriozar – 7 puntu.
- 7) Orvina (Iruñea) – 6 puntu.
- 8) Oberena (Iruñea) – 6 puntu.
- 9) Donibane Kirol Elkartea Escuela (Iruñea) – 2 puntu.
- 10) Mikel Gurea C (Burlata) – 0 puntu.

## **AZKENEKO TXAPELKETETAKO HISTORIA.**

2002-03ko denboraldian: **Orvina A**, txapeldun; **Orvina B**, bigarren; **Donibane Kirol Elkartea**, hirugarren.

2003-04ko denboraldian: **Oberena A**, txapeldun; **Orvina**, bigarren; **Oberena B**, hirugarren.

2004-05eko denboraldian: **Alekhine A**, txapeldun; **Mikel Gurea B**, bigarren; **Orvina**, hirugarren.

2005-06ko denboraldian: **Oberena A**, txapeldun; **Orvina B**, bigarren; **Orvina A**, hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Orvina**, txapeldun; **Mikel Gurea Fon-Clima**, bigarren; **Donibane Kirol Elkartea**, hirugarren.

2007-08ko denboraldian: **Oberena**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Nuevo Casino**, hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Orvina A**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Gazte Berriak A**, hirugarren.

2010-11ko denboraldian: **Orvina**, txapeldun; **Mikel Gurea A**, bigarren; **Gazte Berriak A**, hirugarren.

2011-12ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkartea (Roi Reinaldo Castiñeira, Iñigo Martinez Martin, Ivan Tetimov, Carlos Perez Marchal, Miguel Argaya Urdaniz, Javier Perez Marchal, Daniel Lizarraga Rivas eta Eduardo Tuñon Gonzalo)**, txapeldun; **Santa Ana A**, bigarren; **Orvina**, hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A (Roi Reinaldo Castiñeira, Iñigo Martinez Martin, Miguel Argaya Urdaniz, Carlos Perez Marchal, Kiko Sanchez Salazar eta Daniel Lizarraga Rivas)**, txapeldun; **Orvina A**, bigarren; **Mikel Gurea A**, hirugarren.

2013-14ko denboraldian: **Mikel Gurea (David Arjol Etxeberria, Aitor Martinez Ayesa, Iker Irañeta Unzue eta Aritz Idiazabal Troyas)**, txapeldun; **Orvina**, bigarren; **Santa Ana A**, hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Oberena (Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz, Cesareo Arrese-Igor Sanchez eta Emilio Duran Fernandez)**, txapeldun; **Donibane Kirol Elkarte A**, bigarren; **Paz de Ziganda**, hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte (Roi Reinaldo Castiñeira, Jesus Carlos Sanchez Carayol, Iker Irañeta Unzue, Diego Blanco De la Rosa eta Daniel Lizarraga Rivas)**, txapeldun; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez, Cesar Arrese-Igor Sanchez, Mikel Garjon Modrego eta Mariano De Pablos Fernandez)**, bigarren; **Mikel Gurea A (Aitor Martinez Ayesa, Pedro Forjan Jimenez, Iñaki Esparza Martinez, Odei Lerendegui Lasa, eta Alex Pedchenko)**, hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Mikel Gurea A (Aitor Martinez Ayesa, Aritz Mancha Otano, Pedro Forjan Jimenez eta Angel Vilchez Gonzalez)**, txapeldun; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jesus Javier Cortes Bueno, Miguel Muñoz Arana, Pedro Viñal Gutierrez eta Cesareo Arrese-Igor Sanchez)**, bigarren; **Orvina (Mikel Ortega Lopez, Gustavo Jimenez Martin, Mikel Ochoa Aldaz, Juan Sanciñena Arpide eta Adolfo Ruiz Anton)**, hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A (Roi Reinaldo Castiñeira, Luis David Jimenez Almeida, Borja Zamarbide Iñarrea eta Jose Manuel Lopez Orois)**, txapeldun; **Antsoain A (Mikel Huerga Leache, Aitor Huarte Zozaya, Andres Malon Insausti eta Alvaro Garisoain Ardanaz)**, bigarren; **Oberena A (Jose Miguel Ugalde Ezkurra, Jesus Javier Cortes Bueno, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz eta Javier Habans Aguerrea)**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian: **Oberena (Juan Labiano Hernandez, Pedro Viñal Gutierrez, Javier Yaben Muñoz, Javier Habans Aguerrea, Leyre Abrisqueta Zudaire, Aimer Del Carmen Hernandez eta Martin Pascual Garcia)**, txapeldun; **Mikel Gurea B (Odei Lerendegui Lasa, Sergio Anguas Fanlo, Aitor Martinez Ayesa, Pedro Forjan Jimenez eta Aritz Mancha Otano)**, bigarren; **Donibane Kirol Elkarte (Marc Narciso Dublan, Borja Zamarbide Iñarrea, Iker Irañeta Unzue, Miguel Argaya Urdaniz, Adrian Aldave Aguado eta Daniel Lizarraga Rivas)**, hirugarren.

2021-22ko denboraldian: **Oberena A (Javier Habans Aguerrea, Juan Labiano Hernandez, Eihartze Buiza Prieto, Martin Pascual Garcia, Iñigo Ayucar Nuñez eta Aimer Del Carmen Hernandez)**, txapeldun; **Donibane Kirol Elkarte A (Mikel Huerga Leache, Iñigo Martinez Martin, Jesus Carlos Sanchez Carayol eta Adrian Aldave Aguado)**, bigarren; **Mikel Gurea (Sergio Anguas Fanlo, Adrian Oroz Carrasco, Iker Fernandez Cobos, Aitor Esparza Toni, Javier Aldea Subiran eta Gorka Gonzalez Alonso)**, hirugarren.

2022-23ko denboraldian: **Donibane Kirol Elkarte A (Mikel Huerga Leache, Jesus Carlos Sanchez Carayol, Javier Lizuain Toni eta Iker Irañeta Unzue)**, txapeldun; **Santa Ana (Mikel Santos Usua, Alejandro Fuentes Guinot, Iker Andres Iñiguez, Jose Saez Mancho, Carlos Perez Llera eta Felix Antonio Santos Velasco)**, bigarren; **Donibane Kirol Elkarte Adultos (Miguel Argaya Urdaniz, Iñigo Fernandez Escobar, Oier Layana Medrano eta Daniel Lasasoa Medarde)**, hirugarren.

## **PALMARESA, 2002-03 DENBORALDITIK.**

- 1) **Oberena (Iruñea) – 6 titulu.**
- 2) **Donibane Kirol Elkartea (Iruñea) – 5 titulu.**
- 3) **Orvina (Iruñea) – 4 titulu.**
- 4) Mikel Gurea (Burlata) – 2 titulu.
- 5) Alekhine (Lizarra) – Titulu bat.

**2024-05-20.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**